


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2019ko uztailean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean %1,4 gehitu ziren kostuak

2019ko uztailean Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,2 gutxitu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,4 gehitu, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua lehengoan da (%0,0) eta lehengaien kostuak %0,2 murriztu dira.

Etxegintzako lehengaien kostua %0,2 jaitsi da uztailean; Obra Zibilarenena, %0,3. Urte artean, bi azpisektoreetan zeinu positiboak dira, zeren Etxegintzan %1,2 gehitu baitira lehengaien kostuak eta %0,8 Obra Zibilean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2019 uztaila 2018koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak: *Energia elektrikoa eta gasa* (%6,9), *Industria ez metalikoa* (%4,1) eta *Material elektrikoa* (%2,5). Prezio-jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: *Metalurgia*, %1,5eko jaitsierarekin; *Material elektronikoa*, %1,4koarekin; eta *Petrolio finntzea*, %1,1ekoarekin.

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Uztaila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	105,1	-0,2	1,4	2,1
Eraikinak	105,1	-0,1	1,5	2,0
Obra zibila	105,5	-0,2	1,1	2,5
LEHENGAI	104,8	-0,2	1,1	2,1
Eraikinak	104,7	-0,2	1,2	1,9
Obra zibila	105,3	-0,3	0,8	2,6
LAN-ESKUA	106,2	0,0	2,3	2,3

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62